



# ALEA

arabako aldizkaria

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK  
**ORDEZKARI BERRIEN  
ESPEROAN**

# LAGUNDU HIRIA GARBI MANTENTZEN



Zabor poltsak edukiontzi eta buzoietan utzi



681 102 020





# ALEA 194

2019-05-24 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:  
ESTI LANAO.

## Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Udal eta foru hauteskundearen atarian.
- 10 **Protagonista.** Tita Godinez eta Estibaliz Gomez de Segura, zaintza langileen ordezkariak.
- 14 **Iritzia.** Iñaki Lazkano, 'Klika'.
- 16 **Sarean.** #FinalFour.
- 17 **Iruditan.** "Tren soziala" aldarrikatu dute.
- 18 **Gizarte.** Gasteizko bizikletaren astea, hastear.
- 21 **Gizarte.** Sutea izan da Nuvillako kanpinean.
- 22 **Esanak eta laburrak.**
- 24 **Kultura.** Maider Oleaga zinemagilea: "Nola zen posible Elbira Zipitria ezezaguna izatea?".
- 26 **Musika.** Igor Muñoz, 'Juan Perro'.
- 27 **Gure bazterrak.** Billoda.
- 28 **Umeentzako denbora-pasak.**
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

### Bultzatzaileak



# berria goiena

### Laguntzaileak



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

### Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

### Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

### Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugartte

Juanma Gallego

### Komertziala

Erlantz Anda

### Inprenta

GERTU Inprimategia

**Tirada:** 2.100 ale

### EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

### PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

### HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

**Lege Gordailua:** VI-32-2015

**ISSN:** 2386-8961



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.  
Informazio gehiago: [www.alea.eus/harpidetzak](http://www.alea.eus/harpidetzak)

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailaren edo bestelako  
orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Iñaki Lazkano eta Igor Muñoz.

# Lehia argituko duen inkesta nagusiaren zain

Gasteizko balizko buruz burukoak okupatu du Arabako udal eta foru hauteskundeen protagonismoa hedabide nagusietan, eta Miren Larrion garaile gisa aurkeztu dute azken inkesteak. Igandeko bozetan ikusiko da benetan boto-emileen joerak islatu dituzten edo soilik kanpainarako tresna izan diren.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute** Irudiak: **Aritz Martinez de Luna**

**H** auteskundeen atarian hiru inkesteak –EITB Focus, Eusko Jaurlaritzaren Soziometroa eta Vocento taldearena– eta simulazio batek –Eldiarionorte.es– egin dute lurraldean gerta daitekeenaren aurrerapena, eta boto joerak zeintzuk diren islatu dituzte. Ia denek alegiazko agertoki politiko berdina irudikatu dute; Gasteizko Udalean EAJren, EH Bilduren eta PPren artean dagoen lehia estua Miren Larrionen taldeak irabaziko luke, Gorka Urтарanen eta Leticia Comeronen aurrean. Halaber, igandeko bozetan PPK boto galera handia izango duela aurreratu dute –bi eta lau zinegotzi artean galduko litzuzke Comeronen alderdiak–, eta talde bozkatuena izatetik hirugarren edo bosgarren postu batera pasako litzateke. Joera hori antzeman ez duen bakarria *Eldiarionorte.es* kazeta digitala da; hilabetearen hasieran argitaratu zuen inkesten batezbestekoaren arabera, PP izango litzateke alderdi bozkatuena, botoen %23,2rekin,

## Gasteizko Udaleko emaitzak 2015ean



## Maiatzaren 26rako aurreikuspenak Gasteizko Udalean



eta EAJ izango litzateke bigarren. Bestalde, argitaratutako kontaketa guztien arabera, PSE-EEK zinegotzi kopuruari eutsiko lioke Arabako hiriburuan, eta Elkarrekin Podemosek bere aldetik, zinegotzi bat gehiago lortuko luke.

### Batzar Nagusietan EAJ garaile

Gasteizko Udalean jokatzeko ari den balizko buruz-burukoa alde batera utzita, Arabako Batzar Nagusietan EAJ izango da lehena, aurreko bozetan baino babes handiagoa lortuz. Hala, Soziometroaren arabera, Ramiro Gonzalezen taldeak botoen %24 lortuko luke; EITB Focusen arabera, %28,5; eta Vocentorentzat Ikerfel enpresak egindako lanak %18,8 ematen dio. Eldiarionorte.es-en simulazioak ere EAJ ikusten du garaile herrialdeko kontaketa.

Bestalde, EH Bildu bigarren indarra litzatekeela jaso dute denek, eta PSE-EEK ere gora egingo lukeela nabarmen –Ikerfelen inkestaren arabera, bost batzarkide izatetik hamar izatera ere pasako da–. PPren kasuan, porrot handia izango lukeela aurreikusi dute inkesta nagusiek, eta bigarren postutik bosgarrenera pasatuko litzateke.

### Lagin desberdinak

Maiatza hasieran argitaratu zuten Eldiarionorte.es kazeta digitalean hauteskundearen simulazioa, hain zuen EITBren, Eusko Jaurlaritzaren eta Vocentoren inkestak argitaratu baino lehen; horrenbestez, simulazioaren oinarria aurretik egindako inkesten arteko batez besteko bat da. Endika Nuñez azterketaren egileak argitu zuten "zuhurtziaz" hartu behar zirela datuak, aipatu bezala, inkesta gutxi erabili zituelako, Espainiako hauteskundeak baino lehen hartutako datuak zirelako eta lagin txikia erabili zuelako.

EITB Focus inkesta, berriz, 2019ko maiatzaren 9a eta 14a bitartean, Arabako 550 lagunei eginiko telefono bidezko elkarrizketaren datuekin osatu dute; Eusko Jaurlaritzaren Soziometroak 2019ko apirilaren 29tik maiatzaren 19ra bitartean, etxean, 518 arabarri egindako elkarrizketak izan ditu oinarri; eta azkenik, Ikerfelek telefonoz egin ditu elkarrizketak, apirilaren 30etik maiatzaren 14ra bitartean.

Inkestak herritarren jokabidea islatzeko edo arabarren boto-asmoan eragiteko egin dituzten ikusteko ordu gutxi falta da, galdeketa nagusia hautetsontzietan baitago. ■■■

### Batzar Nagusietako emaitzak 2015ean

### Maiatzaren 26rako aurreikuspenak Batzar Nagusietan





PPALAVA

## Landa eremura bisita

---

Hiriburutik landa-eremura hurbiltzen dira maiz hautagaiak kanpainan, herri txikietan bizi diren herritarren eta batik bat nekazarien bozka bila. Maiatzaren 15ean, San Isidro egunarekin batera, PPko Iñaki Oiarzabal ahaldu nagusigaia Olabarrira hurbildu zen, lehen sektorea defendatuko duen Aldundia aldarrikatzeko. Traktore baten ondoan egin zituzten kanpainako argazkiak PPko eledunek, baina buzo urdina jantzi gabe.



©EHBILDUGASTEIZ

## Ospetsuen xarma

---

Pertsonaia ospetsuak hautagaiei babesu ematen agertzea ohikoa da kanpainan. Hala egin du hauteskunde hauetan Bernardo Atxagak, askoren harridurarako. Miren Larrion EH Bilduko alkategaiaren alde botoa eskatu du idazleak, eta zazpi arrazoi eman ditu hautagaizta babesteko: Larrionek Udala ezagutzen duela, zabalasuna aldarrikatzen duela, emakumea dela, euskaldun berria, gazteak ezagutzen dituela eta ingeniaria dela "eta ez idazlea".



©PNVGASTEIZ

## Umeek inguratuta

---

Umeak hauteskunde kanpainako nahigabeko protagonistak bilakatzen dira sarri. Denok dugu gogoan 2008an Rajoyk aipatu zuen haurra, eta umeei puxikak banatzeko ohitura ere oso zabaldua dago oraindik. Umeak ez dira falta izan EAJren kanpainan; sare sozialetan zabaldu dute jeltzaleek Gorka Urtaran alkategaiaren argazkia, maiatzaren 12an, Mendizorrotzean ospatu zen *Basket Capital* baloialdian, umeek inguratuta.

## Arrosen banaketa

---

Klasikoen artean klasikoena da PSE-EEren arrosa gorrien banaketa. Hauteskunde kanpaina honetan, gainera, egunero hiru arrosa-banaketa egin dituzte PSE-EEko hautagaiek eta militanteek Gasteizko kaleetan; lan horretan aritu dira, besteak beste, Estibaliz Canto orain arte Gasteizko Kultura zinegotzia izandakoa eta sozialisten zerrendaburu Maider Etxebarria. Nazioartean arrosa gorria sozialdemokraziaren ikurra da.



@PSEALAVA

## Txapela buruan...

---

Hauteskunde kanpaina abiatzen den momentutik hautagaia eta bere ekipoa gauzak egiten hasten dira, neurri gabe, lantegietara joaten dira, merkatuetara, herrietara, museoetara, auzo elkarteetara, agerraldiak egiten dituzte kaleetan... Guztia boto-emailearengana hurbiltzeko eta naturaltasuna transmititzeko asmoz. Elkarrekin Podemoseko hautagai Arantza Abeziak Katedraleko bisitan egindako argazkia ere klasiko bat da.



@ELKARREKINVG

## Gertutasunetik

---

Hiritarrei zuzendutako kanpaina tradizionalen aurrean, herri txikietan kanpainak beste modu batean egiten dira. Masa ekitaldien ordez, harreman pertsonalagoa izaten dute hautagaiek bizilagunekin, eta kasu batzuetan ere etxez-etxe joaten dira boto bila. Gainera, alderdi tradizionalen aurrean badira hautagaizta independenteak tailerretan eta batzar irekietan herritarren parte-hartzea sustatzen saiatzen direnak.



KAIXOKANPEZU

# Arabian, aginte makilaren bila

Politikako alor desberdinetan aritu diren aurpegi beteranoak dira zerrendaburuak Batzar Nagusietarako; bederlatzi zerrendaren artean aukeratuko dituzte arabarrek hurrengo legealdirako batzarkideak.



**Iñaki Oiarzabal**  
**PP**

Arabako PPren idazkari nagusia izan zen, 2000tik 2008ra. 2008an EAeko PPren idazkari nagusi izendatu zuten, baina 2014an Arantza Quirogak kargutik kendu egin zuen. 2017an berreskuratu zuen kargua.



**Ramiro Gonzalez**  
**EAJ**

Ahaldun nagusi izendatu aurretik, abokatu modura egin du lan. EAJren aholkulari izan da hainbat enpresatan, eta 2007an egin zuen jauzi Batzarretara prokuradore modura. 2015etik da ahaldun nagusi.



**Kike Fdz. de Pinedo**  
**EH Bildu**

Euskal filologian lizentziatua da, eta Arabako ikastolen elkarteetan irakasle aritu da. Gasteizko Udaleko EH Bilduren bozeramailea izan zen 2011tik 2015era, Batzar Nagusietara jauzi egin aurretik.



**Arantza Abecia**  
**Elkarrekin Podemos**

Geografia eta Historian lizentziatua da, eta Bibliotekonomian espezializatua. Gasteizko campuseko liburutegietan lan egin du hogeitaz. 2015ean hasi zen Batzar Nagusietako ordezkari gisa.



**Cristina Gonzalez**  
**PSE-EE**

Zientzia politikoetan eta Soziologian lizentziatua da, eta UNED-eko irakasle izandakoa. 1991n sartu zen Alderdi Sozialistan, eta batzarkidea izan da 2007tik. Turismo diputatua izan da EAJ eta PSEren agintaldian.



**Javier Gomez**  
**Ciudadanos**

Historialaria da, eta EHUko graduondoko ikerketa taldean aritu da. Besteak beste, indarkeria politikoaren inguruko hainbat lan argitaratu ditu, eta Valentin de Foronda Institutuan lan egin du.



# Gasteizen, 27 zinegotzi jokoan

Hamaika zerrendaren artean aukeratuko dute gasteiztarrek euren alkatea maiatzaren 26an; lehen lerroan, udaleko lanetan eskarmentua duten hautagaiak paratu dituzte alderdi nagusiek.



**Leticia Comeron**  
**PP**

Zientzia Politikoetan lizentziatua, ibilbide luzea egin du politikan. Nuevas Generaciones-eko presidente izendatu zuten 2005ean, eta 2007tik da Gasteizko Udaleko zinegotzia.



**Miren Larrion**  
**EH Bildu**

Ingeniaritza Industrialean eta Ingurumen Ingeniaritzan doktorea da, eta EHU'n irakaslea izan da. 2015ean Gasteizko EH Bilduren hautagaia izan zen, eta 2016an Legebiltzarrerako Arabako zerrendaburua.



**Gorka Urtaran**  
**EAJ**

San Viatorren ikasi ostean, Soziologian lizentziatu zen, eta migrazioen inguruko graduondoa egin zuen. 2007an egin zuen jauzi politikara, Arabako Batzar Nagusietan, eta 2015etik da Gasteizko alkatea.



**Maider Etxebarria**  
**PSE-EE**

Eskola frantses batean ikasi ostean, Turismoa eta Aleman Filologia egin zuen. Sektore pribatuan egin du ibilbide profesional gehiena, 2016an Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendari izendatu zuten arte.



**Fernando Lpz. Castillo**  
**Elkarrekin Podemos**

Kimika ikasten hasi bazen ere, laster egin zuen jauzi kultura arlora. Dokumentalen produktore moduan izandako esperientziari esker, Film Office bulegoa zuzendu du azken urteetan.

## **BESTE HAUTAGAITZAK**

Inkosten arabera, zinegotzi bat lortetik gertu gera daiteke Ciudadanos; Iñaki Sanchez Lopez-Davalillo da zerrendaburua, Santiago Ospitaleko aurpegi-masailtako zirujaua. Beste hainbat alderdik ere aurkeztu dituzte hautagaiak: Libres Por Euskadi (Javier Martinez), Ongi Etorri (Fatima Abouzaid), Escaños en Blanco (Oscar Angulo), Vox (Laureano Diaz Estevez) eta Por Un Mundo Mas Justo (Iratze Buztinza) taldeak ere izango dira lehian.

# "Mugarik ez duen arazoa da zaintza sektorearena"

**TITA GODINEZ ETA ESTIBALIZ GOMEZ DE SEGURA ZAINZA LANGILEEN ORDEZKARIAK**

Zaintza sektoreari buruz Gasteizen egindako lehen diagnosis aurkeztu berri dute. Horrek utzitako ondorioez eta bertako zein Guatemalako egoeraz hitz egin du ALEAk Estibaliz Gomez de Segura gizarte hezitzailearekin eta Guatemalako Sector de Mujeres erakundeko Tita Godinezekin. Testua eta argazkiak: **Mirian Biteri.**

**D**atu eta proposamen interesgarriak utzi ditu zaintza sektoreari buruz Zentzuz Kontsumitu partzuergoak Gasteizen egin duen *Zeinek zaintzen du eta nola Vitoria-Gasteizen? Etxeko langileen egoera Vitoria-Gasteizen: hurbilketa bat* izeneko txostenak.

Besteak beste, agerian utzi du langile horiek jasaten duten bazterkeria egoera hori egiturazkoa dela Ipar zein Hegoaldeko herrialde guztietan.

**Zein da Guatemalako etxeko langileen errealitatea?**

**Tita Godinez:** Guatemala oso herrialde baztertzailer da, aberastasuna gutxi batzuen esku dago eta horrek desabantaila handiak sortzen ditu gizartean. Estatuak ez du lortu gizartearen oinarritzko beharrak asetzea, eta gaur egun ustelkeria eta narkoarekin lotutako arazo larriak ditu. Biztanleria gehiena emakumeekin osatuta dago, eta kopuru handi bat emakume indigenek osatzen dute. Horiek dira, hain justu ere, babes gutxien dutenak.

**Emakume horiek etxeko langileak dira gehienak.**

**Nolakoa da perfila?**

**T. G.:** Gazteak dira, bere landa-komunitatetik hirira emigratu behar izan dutenak. Andre hauek, neurri handi batean, barneko langileak dira; hain justu ere, oso soldata baxu baten truke, enplegatzailearen etxean lo egiten duten

langileak dira; oso gutxi daude denbora partzialean lan egiten. Horrekin lotuta, oso arazo larria dago egun Guatemalan: emakumeen salerosketa. Ez helburu sexualetarako, baizik eta etxeko lanak egiteko. Badaude sareak landa-komunitateetara joaten direnak eta baldintza onak eskainita, hirira eramaten dituztenak. Konturatu orduko, lanean jartzen dituzte eta bere soldatarekin geratzen dira. Lan horiek ez daude aitortuta, ez dute baliorik.

**Zer nolako baldintzatan egiten dute lan etxeko langileak?**

**T. G.:** Guatemalan gutxieneko soldata 500 (58,29 euro) ketzaletan dago ezarrita. Baina etxeko langileen sektorea ez dagoenez araututa, hori ez da errespetatzen; eta kontraturik ez dutenez eta lan baldintzak arautu gabe daudenez, lagun horiek ez dute inongo babesik. Ordu kopurua, zereginak eta zaindu beharreko pertsonen kopurua ez daude zehaztuta. Egoera horren aurrean, sektore horretako emakumeak hasi dira mugitzen, bere eskubideak bete ditzatela eta lan hori arautu dezatela eskatzeko. Baina zaila da aurrerapausuak ematea, nire ustez, politikoei enplegatzaileak babesteko konpromisoa dutelako hartuta.

**Gasteizko errealitatea ez da askoz hobea...**

**Estibaliz Gomez de Segura:** Emakumeak ahalduntzen hasi bagara ere, zaintzaren



sektorean hutsune handi bat dago; gizonezkoen artean ez da erantzunkidetasunik ematen; ez eta gobernuen artean ere. Zaintzetan krisialdi bat dago, emakumeok jarraitzen dugu horren ardura izaten, lanaldi amaigabeekin. Sistema heteropatriarkal, arrazista eta klasista oso ondo antolatuta dago bere herrialdeetan gertatzen diren gatazka politiko konplexuengatik emigratu behar duten emakume txiroek lan horiek bete ditzaten lortzeko. Kontuan hartu behar dugu andre horiek beren familiak uzten dituztela jaioterrian, hango zaintzak ama, ahizpa edota alaben eskuetan utzita. Zaintzen krisialdia ematen da bere jaioterrian nahiz Gasteizen.

#### **Mundu mailako krisialdia da zaintzarena.**

**E.G.S.:** Hala da. Berdin du non. Emakumeak beti gabiltza zaintzen eginkizun berdina betetzen. Eta, gainera, gizarteak ez du baloratzen. Ezegonkortasuna da nagusi: gutxieneko soldata 900 eurokoa da; horrek markatzen du zaintzen balorea. Batezbesteko zaintza soldataren %40 gutxiago da. Etxean lo egiten dutenen kasuan, 1.300 eurokoa da. Lan-baldintzak Guatemalakoen antzekoak dira. Batzuk aipatzearen: ez dute langabeziarako eskubiderik, gaueko orduak ez daude araututa, lan arriskuen legedia ez da aplikatzen, amatasunagatik kaleratzea bidezkoa da. Gainera, etxean lo egiten duten gehienak

paper gabekoak dira. Atzerritarren legeak ez die lan egiten uzten; bizileku-ziurtagiria lortu ahal izateko hiru urte pasa behar direla aurreikusten du, eta, hortaz, lan mota hori aterpe bat bilakatzen da emakume hauentzat; lanaren truke, ostatua eta mantenua ematen diete denbora tarte horretan. Horrek sektorearen irregularizazioa dakar, gaur egungo sistemak babesten duena. Bestetik, hitzarmen kolektiborik ez dago sektore horretan; familiako gizonarekin negoziatu behar dute guztia. Eta hori guztia gutxi balitz, Guatemalak bezala, Espainiak ere ez du Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189 hitzarmena sinatu.

#### **Gauza bera toki guztietan...**

**T.G.:** Bai, mugarik ez duen arazoa da. Bizitza merkantzia bilakatzen du egungo sistemak; herrialde guztietan merkataritzari ematen zaio garrantzia eta gizakiok kontsumoari ematen diogu lehentasuna, eta jarrera hori bizitza jasangarriaren kontra doa. Etxeko zaintzei dagokionez, funtsezkoa da eztabaida zabaltzea helburu duten politika integralak martxan jartzea. Guatemalaren kasuan, emigrazioaren atzean dauden egitura-arazoei hartu behar zaie aurre; hain justu ere, ezberdintasunari, arrazakeriari edo bizitzaren merkantilizazioari. Arazo horiei gizarte osoak egin behar die aurre, ez

**"OSO ARAZO LARRIA DUGU EGUN  
GUATEMALAN: EMAKUMEEN  
SALEROSKETA ZAINZARAKO"**

**"SEKTORE HONEK EKONOMIA  
SOSTENGATZEN DU. HORI AITORTU  
ETA LAN-KARGA BANATU BEHAR DA"**

**"IRAILEAN GASTEIZKO UDALEKO  
OSOKO BILKURAN PARTE HARTUKO  
DUGU, GURE LANA AZALTZEKO"**

dira bakarrik emakume langileei eragiten dieten arazoak. Gizonezkoak zaintzen parte izan behar dira eta hortik bilatu behar da irtenbidea.

**E.G.S.:** Bat nator Titak egin duen analisiarekin, guztioi eragiten digun arazo bat dela esatean eta baita bizitzaren merkantilizazioan ere. Ekonomia feministak tresna garrantzitsua eskaintzen du horretan. Beti existitu izan den arazoaren inguruan, gaur egun izena jarri ahal izango diogu eta zaintzen gaineko ikerketak ditugu eginda. Zaintzen gainean hitz egiten dugunean ekonomia feministak errealitatea orain arte ulertu izan ez dugun moduan ikusteko aukera ematen digu: genero desberdintasunak nolakoak diren argitzen digu, betiko rolek emakumeei eta gizonei gauza ezberdinak garatzera jartzen dituzte. Guztien onerako izan behar da zaintza, gizarteak babestu behar duena, eta zeregin horretan politikak garatu behar dituzte talde politikoek eta agintariek.

**Baina gizartea guzti horren jabe al da?**

**T.G.:** Lan egin behar da. Zaintzen ekonomia gaur egun tresna politiko eta metodologikoa da, horren atzean dagoena ikusteko aukera ematen diguna. Historikoki, emakumeek egin duten lana ikusezina izan da, eta zoritxarrez emakumeak ez gara horren jabe. Kontuan izan behar da Guatemalako Barne Produktu Gordinaren %18,9a zaintza lanari lotutakoa dela, eta nekazaritzak (%17) baino pisu gehiago du. Nekazaritzak baino aberastasun gehiago sortzen dugu. Gu gabe ez legoke errentarik, ez kapitalik, ez irabazirik. Zaintzek ekonomia sostengatu egiten dute. Eta hori aitortu behar da; aitortu eta lan-karga banatu egin behar da. Horren gaineko eztabaida piztu behar da, aldatu ahal izateko.

**Zaintza sektorearen inguruan ikerketa egin duzue Gasteizen. Zer asmorekin?**

**E.G.S.:** Alde batetik, errealitatea datuen bidez ikusarazteko; eta bestetik, analisia egitearekin batera, indartu beharrekoak atera ditugu, eta hainbat gomendio eta proposamen ditugu. Esaterako, diagnostikoak ondorioztatu du elkarte publiko baten beharra dagoela, lagun hauen lan



**ERROTA**  
HORTZ KLINIKA  
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1  
01012 VITORIA-GASTEIZ



Diagnosiaren aurkezpena egin zuten hilaren 15ean Landatxon; goiko irudian, parte hartu zuten lagunak. ZENTZUZ KONTSUMITU

baldintzak zeintzuk diren kontrolatzeko ardura izango duena; horrekin lotuta, familia enplegatzaileak formatu egin behar dira. Etxeko langileei, bestetik, beren baldintzak zeintzuk diren eta familiarekin izan behar duten harremana nolakoa izan behar den azaldu behar zaie, eta ezetz esateko aukera dutela jakinaraztea. Mugimendu feministari, berriz, arazoa ikusarazten jarrai dezala eskatzen diogu eta sektorearen aldarrikapenak babestu ditzala; legegileei bizitzaren zerbitzura dauden zaintzen aldeko politikak garatu eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena berretsi dezatela; sindikatuei sektorearen lan baldintzak defenda ditzatela. Adibideak baino ez dira honakoak.

**Zeintzuk dira hurrengo pausuak?**

**E.G.S.:** Proposamen horiekin ate guztiak joko ditugu. Irailean, esaterako, Gasteizko Udaleko osoko bilkuran parte hartuko dugu, herritarren txanda erabilia, talde politikoei egiten ari

garena azaltzeko. Bestetik, sindikatuekin dagoeneko elkartu egin gara eta sektorearen alde lan egin dezatela eskatu diegu, eta erantzun ona jaso dugu. Horrez gain, esfortzu berezia gabiltza egiten emakume langile hauek ahaldundu daitezzen, beraiek izan behar direlako bere errealitatearen berri zuzenean ematen dutenak. Gu gabiltza lan hori egiten orain, baina guk ez dugu beraiek bizi dutena sufritzen.

**Laburbilduz, errealitatea ezagutzeko egindako azterketa hori abiapuntua besterik ez da?**

**E.G.S.:** Hori da. Gasteizen inoiz ez da horrelako diagnostiko bat egin, eta hemendik aurrera kargua hartzen ibiliko gara. Zaintzak guztion ardura dela gogoraraziko dugu behin eta berriro.

**T.G.:** Agendaren puntu estrategiko bat da zaintzena, guztion artean eztabaidatu beharrekoa. Eztabaidaz gain, irtenbidea bilatu ahal izateko, errealitatea gehiago ezagutu behar dugu, azterketen bidez. ■■■■

# Klika!



**IÑAKI LAZKANO**  
EUSKARA TEKNIKARIA

**I**zenburua irakurtzean bateren batek pentsatuko du, baina zertan ari da honako hau 21. Korrikaren leloa gurera ekartzen? Bada hilabete pasatxo amaitu zela, eta orain egin behar al du hausnarketa?

Altzako Jon errudun, berea burutazioa, berak piztu dit gogoetarako txispa, eskuetan jarri klika egiteko zizpa, plaza beteek eta enparantza hutsek sortu baitigute poza nahiz kezka.

Gure hirian astelehenak ez zuen izan beste hizpiderik, hauteskundeetako liskarren oihartzunek ez zuten izan lekurik; aitzitik, asteburuko plaza, kale eta taberna hutsak bilakatu ziren berbetarako aitzaki. Izan ere, non demontre sartu ziren erriarrak eta turkiarrak? Nora demonio joan ziren zerbeza kupelak edan eta milaka pintxo zein ogitarteko jango zituztenak?

Plazak hutsik eta tabernetako mostradoreak bete-beteak nork eskua luzatu zain, husteke.

Ez naiz ni izango 4ko finalik *-fainalfourrik-* ez dela antolatu behar esango duena (Kerexetaren izpirituak libra nazala horrelakorik esatetik!), baina, oso garbi aldarrikatu, defendatu eta sustatu nahi dudana da badirela "hainbeste" laguntza mediatiko eta instituzional jasotzen ez duten ekimen, jaialdi eta festa begirune eta babes gehiago merezi dutenak.

Ez da beharrezkoa alderaketa ankerrik egitea, baldintza ezberdinak izan ziren asteburu batean eta bestean, baina gure erakundeek azken honetan eginiko diru publikoaren xahutze ariketak, horrek bai merezi duela hausnarketa eta autokritika.

Eztabaida ez da plazak betetzen diren ala ez, gogoetarako iturria diru publikoaren xahutzea izan behar da. Ekimen zehatz batek 4 milioi euro jasotzen baditu, gutxi samar geratuko da besteentzat, ezta?

Zertan inbertitu behar dute gure erakundeek? Zein ekimen sustatu? Nola? Eta batez ere, zein neurritan?

Larunbatean hausnarketa eguna ei da, izenari ohore egin diezaiogun, eta ariketa horren ondoren ez dezagun gure botoa hautetsontzian itsumustuan sar.

Egin dezagun klika! ■■■

**ZERTAN INBERTITU  
BEHAR DUTE GURE  
ERAKUNDEEK? ZEIN  
NEURRITAN?**

Euskaltelen  
onena

**ERDI-PREZIOAN  
BAINO MERKEAGO**

**19'9€**  
/hil  
6 hilabetez

### Zatoz Euskaltelera



**120**  
MEGA



**20GB**  
DEI  
MUGAGABEAK



PREMIUM  
**TB<sub>a</sub>**  
4KDEKOArekin



**FINKOA**  
DEI  
MUGAGABEAK

[www.euskaltel.eus](http://www.euskaltel.eus) | Dendak | 1717



euskaltel

Zatoz zuntzera 2019/5/31 baino lehen, eta sei hilabetez izango duzu sustapen hau, kontratazio-egunetik zenbatzen hasita. Iraupen-konpromisoa: 12 hilabete. Gero, prezioa 72 €/hil izango da. BEZa sartuta dago prezioan. Informazio gehiago, hemen: [www.euskaltel.eus](http://www.euskaltel.eus)

Babesle teknologikoa:

## SAREAN

@JUANMAGALLEG0

## #FinalFour

**A**steburuan izan da Final Fourra Gasteizen, eta, Buesa Arenan bildutako zaleek esan dutenaren arabera, ederra izan da bertako giroa. Halere, giro hori ez da asko islatu hiriko kaleetan, eta horrek ezinegon ugari sortu du, kontuan izanda instituzioek lau milioi euro inguru jarri dutela ekimena sustatzeko. Askoren ustez, inbertsio horrek ez du itzulkin garbirik izango. ■



**IMANOL MAGRO**  
@Imagreto

4ko Finalaren inguruko balorazioak entzuteko irrikan. Hausnarketa eragin beharko luke gertatu denak. Muinean, espero baino zale gutxiago etorri dira kanpotik (Efes eta CSKA), eta etorri diren batzuk (R. Madril) ez dute aurkitu euren neurriko eskaintzarik. #ikasketa



**JON ALTZA**  
@kokoteko

Ez zait gustatzen termino ekonomizisten asuntua, baina alderatu bagenu hirian zer uzten duen asteburu honetakoak eta Korrikaren amaierak... #ahilodejo



**JOSEBA**  
@Josebasanchez

Lau final fourretan egonda naiz, eta ez dut sekula pablorik ikusi aurten ikusi dudana legez. Euroligak egindako antolaketa ezin hobea izan da. Saskibaloia maila, aldeztatik aurretik pentsa genezakeen legez, itzela. Hau guztia Gasteizen bizi izan dugu. Dagokionari... Mila esker!



**SUKIA**  
@zulobeltz

Beste balorazioez gain, bada halakoetan beti galtzaile ateratzen den zerbait, #euskara. #F4GLORY fan zoneetatik kuxkuxeatu ostean erdara eta ingelera baino ez. Derrigorrezkoa behar luke diru publikoaz egindako edozein ekintzetan euskararen presentziaren bermea. #laukofinala

# Lanbide Heziketa

**IZENA EMATEKO EPEA:**  
ekainaren 3tik 14ra arte

**ATE IREKIAK** asteazkenero - 18:00etan







## "Tren soziala", lurraldea egituratzeko

Berrogei bat traktorek lagunduta, bi mila lagun inguruk parte hartu dute joan den larunbatean AHTaren kontrako plataformek Gasteizen deitutako manifestazioan. "Tren soziala" aldarrikatu dute, eta abiadura handiko proiektuak ekarriko duen "txikizioa" salatu dute. "Argi utzi nahi diegu erakundeei gure lurraldeak mehatxupean dituzten Abiadura Handiko Trenaren projektuen aurka herritarrok dugun sentimendua zein den", adierazi dute antolatzaileek. AHTaren ordez, egungo trenbidea erabiltzea proposatu dute, zabalera europarra izango duen hirugarren lerro bat gehituta.

Argazkia: PHOT.OK 



**Bidali zure  
argazkiak testu  
labur batekin:  
erredakzioa@alea.  
eus**



Bizikletak mugikortasunetako eta aisialdirako tresna bikaina dela aldarrikatuko dute jardunaldietan. UNSPLASH

# Galga bakarra, bizikletarena

Emakumeei eta zentzumen urritasuna duten lagunei tarte berezia eskainiko diete aurtengo Gasteizko bizikletaren astean, bai hitzaldi zein tailerretan. Gaiari buruzko horma-irudia ere margotuko dute.

## **JUANMA GALLEGO** GASTEIZ

Zifrak ez datoz bat. Bi aste irauten du Gasteizko bizikletaren asteak: maiatzaren 27tik ekainaren 9ra arte. Ekimenak hartu duen indarraren seinale da hori, urtez urte egonkortu baita hitzordua. Gasteizko Bizikleteroak taldeak ekin zion aurrenekoz bizikletari eskainitako lehen astea antolatzeari. Hasieran lagun talde baten eki-

mena izan zenak martxa eta ibilbide propioa hartu du. Maldan gora batzuetan, baina, betiere, gogotsu.

Lehen horiek zer desberdin ziren ondo du gogoan Bizikleteroak taldeko kide Diana Paniaguak. "Hasiera batean Aldabe gizarte etxean baino ez genuen egiten, eta kartelak eta bestelako materialak ekoizteko orduko Vital Ku-

txaren laguntza baino ez genuen. Baina gauzak dezente handitu dira orain". Era horretan, hiriko gizarte etxe desberdinetan daude sakabanatuta orain ekitaldiak, eta, parte hartzen badu ere, Bizikleteroak elkarteak ez darama antolaketaren ardura. Hasierako helburua, baina, ez da aldatu: bizikletaren atzean dagoen bizi filosofia bultzatu nahi dute.

Gasteizko Bizikletaren astearen XVIII. edizioan emakumeei eta zentzumen urritasuna duten lagunei emango diete protagonismoa. Asmoa ekintza zehatzetan gauzatuko da. Arabako Gorrak eta Itxaropena taldeek parte hartu dute aurtengo ekitaldien prestaketan.

Bai lurralde urrunetan izandako abenturak zein etxe atarian dauden aukerak, horretarako guztirako bidea ematen du aurtengo egitarauak. Hasiberrientzat, bizikletan trebatzeko moduko tailerrak ere

antolatzen dituzte. Hau da, gainera, gogobetegarriena antolaketan lanetan ari direnenez, Paniaguak aitortu duenez. "Parte hartzen duten gehienak emakumezkoak dira, eta oso urduri jarri ohi dira. Zeretik hasita iristen dira gehienak, edo oso txikitik ibili zirenak eta ahaztu dutenak. Baina, behin bukatzean, gehienak bizikletaren gainean ateratzen dira: zirrara antzematen zaie aurpegi-tan, eta hau zinez polita da."

### **Ikasteko gogo**

Bizikletaren mekanikari buruzko tailerrak ere prestatu dituzte; horietako batzuk soilik emakumeentzat izango dira. Gaur egun horrelako ekimenen beharra gizar-tean barneratuta dagoen arren, hau ez da beti horrela izan, Paniaguak gogoratu duenez. "Elkar-tean ere batzuetan emakumeentzako ikastaroak antolatzen genituen, eta, hori egin genuenean, hainbat protesta entzun behar izan genituen. Tailer horien helburua sinplea zen: konturatu ginen ikastaromistoak antolatzen genituenean, askotan emakumeak pixka bat atzerago geratzen zirela. Gizonezkoak mekanikan trebatuago zenez, beti gehiago zekiten. Berdin bizikletan ibiltzen ikastea. Kurioso da batzuetan gertatu dena: batzuetan senarrak bota behar izan ditugu ikastaroetatik, emazteei aginduak ematen hasten zirelako. Egoerak ez zuen ez hanka ez bururik: artean ez ziren kezkatu emazteari irakasteaz, baina, bat-batean, ikastaroan hasten ziren irakasten".

Aurten, bada, mendiko bizikletan aritzen den emakume talde batek BTT bizikleten mekanikari buruzko oinarritzko ikastaroa prestatu du, emakumeei begira. "Horrelako kirol bat egitean, mekanikaren inguruko gutxieneko

## **BIZIKLETARI BURUZKO HORMA-IRUDI BERRIA EGINGO DUTE HIRIAN, WERCKMEISTER AHIZPEN LAGUNTZAZ**

ezagutzak ez badituzu, mendian botata geratzeko arriskua duzu", argudiatu du Paniaguak.

### **Urritasuna ez da arazo**

Bizikletan ibiltzeko galga bakarra bizikletarena izan behar dela berresteko, aurtengo jardunaldietan zentzumen urritasuna duten lagunen testigantzak izango dituzte. Hitzaldietako bat gorra den Jose Luis Garcia Ginard bidaiariarena izango da: entzuteko gaitasunik ezak ez dio mugarik jarri azken 15 urteetan mundu osoan zehar bidaiak egiteko; besteak beste, Madagaskar, Kanbodia, Laos, Filipinak, India, Maroko, Argentina edota Txile bisitatu ditu Garcia Ginardek, bizikletan.

Beste testigantza batean, bi bidaiarik erakutsiko dute posible dela bidaiatzea ikusmen urritasuna izanda ere. *La vuelta al mun-*

*do en ochenta dioptrías* izen esanguratsua jarri diote hitzaldi horri, eta asteari hasiera emango dion hitzordua izango da gainera.

Azkenik, eta Bizikleteroak elkarteke 20. urteurrena ospatzeko, gaiari buruzko horma-irudi bat egingo dute Iparralde auzo etxeko horma batean. Horretan laguntzeko, jendearen parte-hartzea eskatu dute, aldez aurretik izena emanda. Veronica eta Christina Werckmeister artisten laguntza izango dute. Maiatzaren azken astean gauzatu nahi dute ideia, baina, eguraldiaren arabera zehaztuko dituzte data zehatzak. Lekua ez dute kasualitatez aukeratu. "Alboan bidegorri bat dago, eta baita nahiko denbora gorritz ematen duen semaforo bat; Gasteizera sartzen diren gidariek irudia ikus dezaten aproposa, beraz", nabarmendu du Paniaguak.

Izaera hori duen bigarren horma-irudia litzateke Gasteizen, beste bat badagoelako Errekaleorren. "Tira, Udalak astea iragartzeko argitaratu duen foiletoan agertzen da Errekaleorreko irudi hori. Ez dakit nik zer pentsatuko duen Urbaranek, horretaz jabetzen bada".

## **Confecciones Pinedo, S.L.**

*Euskal Jantziak*

San Antonio, 11  
Heraclio Fournier, 15  
GASTEIZ



[www.confeccionespinedo.com](http://www.confeccionespinedo.com)



### AMEZTOI TXAKOLINDEGIA



36€ 6 botilako kutxa

### K5 ARGIÑANO TXAKOLINDEGIA

K PILOTA txakolina



45€ 6 botilako kutxa

### LEZAUN ARDO EKOLOGIKOAK



2018. urteko Lezaun 0,0 sulfito  
(2017ko Zilatreko Ekoardoa - Errico)

28€ 6 botilako kutxa

2018. urteko  
Lezaun Gazaga  
(Nafarroako sor-markako haritz  
ardo onenaren saria, 2017)

40€ 6 botilako kutxa



### ITURRI KONTSERBAK



ZAINZURIAK  
Zainzuri estra lodiak,  
13-16 ale

24€ 3 pote

### PEDRO LUIS KONTSERBAK

ZAINZURIAK

Zainzuri lodiak, 8-12 ale

38€ 6 pote



### PEDRO LUIS KONTSERBAK

Gourmet KALABAZA krema



15€ 6 pote

### PAGOA GARAGARDO SORTA

27€ 12 botilako kutxa



- 3 Stout (beltza)
- 3 Pilsner (horia)
- 3 Red ale (gorria)
- 3 IPA

### ALFAR OLIOA

Oliba olio  
Birjina estra



43€ 6 botilako kutxa

### SOLAGÜEN ARDOAK

2018. Solagüen beratzte KARBONIKOAK



30€ 6 botilako kutxa

2018. Solagüen  
ZURIA

30€ 6 botilako kutxa



Eskariak egiteko azken eguna  
**maiatzaren 31**

**Osatu  
zure saskia!**

Bidalketa  
gastuak  
**DOAN**



Suhiltzaileek ordubete inguru eman dute sua amatatzeko. ARABAKO SUHILTZAILEAK

# Suak Nuvillako kanpina hartu du

Sei karabana guztiz kiskalita geratu dira Nuvillako 'El Roble Verde' kanpinean, astelehenean izandako sute baten ondorioz. Suhiltzaileek 30 lagun inguru desalojatu behar izan dituzte bertatik.

## JUANMA GALLEGO POBES

Asteleheneko 09:45 inguruan jazo da ezbeharrak, Pobesetik lau kilometrorako dagoen Nuvilla herrian, Erriberagoitian. Oraindik argitze-ko dauden arrazoiak tarteko, karabanen gunean sua hasi da, eta azkar hedatu da ibilgailu batetik bestera. Ondorioz, sei karabana guztiz kiskalita gertatu dira. Kanpinean zeuden edota gertatutakoa ikustera hurbildu diren 30 lagun inguru desalojatu behar izan dituzte suhiltzaileek.

Sua piztu denean inor ez zegoen karabana horietan, eta, hein batean, horrek erraztu du inor zau-

ritua ez izatea. Alabaina, suteak kalte material larriak eragin ditu: kiskalitako sei karabanez gain, beste bi karabana eta bi bungalow kaltetu dituzte sugarrek. Halere, ezbeharrak norainoko kostu ekonomikoa izango duen zehazteko dago oraindik.

**EZBEHARREAN EZ DA ZAURITURIK EGON, BAINA BAI ZEHAZTEKO DAUDEN KALTE MATERIAL HANDIAK**

Nuvillako herritar batek eman du abisua, kea ikusteak. Hasierako uneetan hainbat eztanda entzun direla diote testiguen, antza, karabanetako gurpilak lehertu izanaren ondorioz. Zorionez, suhiltzaileak nahiko azkar iristeko moduan egon dira, Espejon bertan postu bat daukatelako. Inguruan gas bonbonak eta propano biltegi bat zeudela ikusita, kanpina hustea erabaki dute suhiltzaileek. Ordubete eman dute sugarrek amatatzeko.

## Kanpina irekita

Hasierako izualdia pasata, *El Roble Verde* kanpineko arduradunek suhiltzaileen eta Ertzaintzaren lana eskertu dute, "azkar eta modu eraginkorrean" aritu izanagatik. Kalteak konpontzeko lanean hasi direla adierazi dute. Gertatutakoagatik "triste" dauden arren, gainerako lursailak baldintza onetan daudela iragarri dute, eta kanpina irekita dagoela argi utzi nahi izan dute.

Duelahamar urte inguru martxan jarri zuten kanpina, era bereziki karabanak eta bungalowak urte osoan erabiltzen dituzten familiak jasotzen dituzte bertan.



## ESANAK



**AMAIA ZUFIAUR**  
AHT-AREN AURKAKO MUGIMENDUA

**"Eremu bakartuak utziko ez dituen tren bat nahi dugu, denentzat eskuragarri"**



**ABELARDO FERNANDEZ**  
ALAVESEKO ENTRENATZAILE OHIA

**"Alavesek guztia egin du nik jarraitzeko, baina ez naiz %100a emateko gai izango"**




**PEIO RUIZ**  
ARASURREKO PRESIDENTEA

**"Ahate itsusia izatetik, beltzarga ederra izatera pasa da Arasur; hegaldi ona falta zaio"**

## ZENBAKITAN

### Jaiotzak

**Jaiotzen** jaitsiera izan zen jaiotze EAEko hiru lurraldeetan, baina nabarmenena Araban izan zen. Eustatek emandako datuen arabera, %9,4 egin dute behera jaiotzek Araban, 279 jaiotza gutxiago. Bizkaian %6,8 gutxitu ziren jaiotzak (581 jaiotza gutxiago), eta Gipuzkoan %2,3 (126 jaiotza gutxiago). Guztira, 16.090 haur jaiotzen ziren 2018. urtean EAEn, aurreko urtean baino 986 gutxiago. Jaiotzak adinaren arabera banatuta, nabarmentzekoa da 2018ko laugarren hiruhilekoan, 35-39 urteko amen portzentajea handitu dela eta talde nagusia bilakatu dela (%35,6).



**337**

### Kiloak

**Espainiako Poliziak** 337 kilo droga sintetiko gordeta zituzten bi laborategi desegin ditu Araban, eta astelehenean izandako operazioan hamabi pertsona atxilotu ditu. Beste horrenbeste miaketa egin dituzte Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian. "Bakterio" izenez deitu duten operazioan, droga banatzen zuten bi talde desegin dituzte, tartean Labrazan. Taldeko burua droga trafikatzailerik ezaguna da eta Bizkaia-Kantabria inguruan finkatuta zegoen.

**400**

### Euroak

**ARTgia** sorgune eta aretoak Arabako artista berrien zein ibilbidea duten artisten lana sustatu nahi du beka batekin. "Artistei erakusketa-gunea irekitzearen aldeko apustua egiten dugu. Erakutsi eta hedatzeko bitartekoak eskaintzen ditugu, eta, gainera, proiektu irabazleek 400 euroko diru-laguntza jasoko dute", azaldu du Irantzu Lekue aretoko zuzendariak. Deialdia ekainaren 10era bitartean egongo da irekita, eta horixe izango da proiektuak aurkezteko epea.

## The Baboon Show, Tara eta Mafalda, Gasteizko txosnen egitarauan

Gasteizko jaietako egitarau desberdinak badoaz osatzen, gutxina gutxinaka, eta txosnek ere aurkeztu dituzte lehendabiziko musika taldeen izenak. Abuztuaren 2an irekiko ditu atek Txosnaguneak, eta, besteak beste, The Baboon Show (Suedia), Komando klitorix (Gasteiz), Mafalda (Valentzia) eta Tara (Gasteiz) taldeak igaroko dira bertatik.



The Baboon Show. THE BABOON SHOW

## Martxoak 3 elkarreak Nazio Batuetara joko duela iragarri du

Arabako erakundeek auzitegietan aurkeztutako kereilek aurrera egin ez dutenez gero, Martxoak 3 Elkarreak adierazi du kasua Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordean aurkezteko asmoa duela. Batzorde hori aditu independenteek osatutako organo bat da, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren aplikazioa gainbegiratzeko duena.

## Juanito Oiarzabal omenduko dute Txakolinaren Egunean

Txakolinaren Eguna ospatuko dute datorren ekainaren 2an, Amurrión, lurraldeko txakolin onenak bilduko dituen jaialdian. Zortzi upategitako txakolinak aurkeztearekin batera, gastronomia txokoa izango da eta ohiko garrafa lehiaketa. Aurten, gainera, Juanito Oiarzabal mendizale gasteiztarra omenduko dute jaialdian, Annapurnara igo zela hogeitau urte bete direnean.

## BAT txartela trenean erabili ahal izatea aztertzen ari dira

BAT txartelarekin trenean ordainketa egiteko aukera aztertzen ari dira Arabako Foru Aldundia eta Renfe. Bi erakundeak, halaber, Lautadara eta Miranda-Ebrora joan-etorriak egiteko foru autobus lineak koordinatzeko lan egiten ari direla esan dute. Txartela dutenek, besteak beste, Bilboko metroan eta Donostiako garraio zerbitzuan erabil dezakete.



### ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK

2019



Learning from reality

Egindako lanaren etekina ikusi eta harro sentitzen da bat.

*Ane Oyarzun Domeño*  
Odieta. Ingenieria Biomédica. 4º curso.

### INGENIARITZAK

---

GOIERRI EKAINAK 1\*

LARUNBATA 10:30

ORONA IDEO EKAINAK 1\*

LARUNBATA 10:30

\* Batxilergoko lehen mailan dauden ikasleei zuzendutako ate irekia



Etorriko zarela jakinarazi!

902 110 436 — [www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# "Nola zen posible Elbira Zipitria ezezaguna izatea?"

MAIDER OLEAGA ZINEMAGILEA

M. UGARTE/ A. AMENABAR

Mexikon hainbat urte egin eta gero, Donostiara bueltatu zen Maider Oleaga zinemagile gasteiztarra 2011. urtean. Etxe berezi batera bueltatu zen, Donostiako Parte Zaharrean; Elbira Zipitria andereñoarena izandako etxea zen, frankismo garaian eskola klandestino izandakoa. Istorio harrigarri horrekin osatu du *Muga deitzen da pausoa* filma, Alea FM saioan aurkeztu duena.

**Zazpi urte baino gehiagoko lana, eta proiektu pertsonalena, ezta?**

Bai, pertsonalena batez ere aurkitu nuelako istorioa nire etxe barruan eta horrek markatu zuen proiektuaren ibilbide guztia.

**Donostiara heldu zinen, Fermin Calveton kalera, Elbira Zipitriaren etxera. Haren berririk izan gabe.**

Plaka bat badu etxeak, eta hor aitortzen zaio euskal eskolaren aitzindaria izan zela, baina nik ez nuen ezagutzen. Eta hortik gutxira hasi nintzen irakurtzen Mari Carmen Mitxelena bere lagun eta lankide izandakoaren biografia bat, eta txundituta gelditu nintzen: nola zen



Maider Oleaga. ALEA

posible Euskal Herrian bere izena ezezaguna izatea? **Zipitria ezagutzen zuten hainbat lagunekin izan zinen.**

Bi urte egon nintzen ikerketa lanetan. Bere pedagogia azaltzen duen libururen bat badago, ze oso aurrerakoia izan zen alor horretan, baina berez ez zegoen informazio handirik, eta tiraka hasi nintzen bere ikasleekin, ezagunak...

**Etxean ere bazegoen materiala, ezta?**

Etxean gutxi zegoen, bere arbela, koadroren bat eta kutxa bat. Baina etxea garrantzitsua

izan da; nahiz eta hutsik egon espazio hori, nahiz eta ikusezina izan, niretzako oihartzun batzuk zeuden, istorio asko zeuden hor. Eta horrek lagundu zidan abiapuntu moduan.

**Momentu horretan hasi zinen filmarekin?**

Istorioa ezagutu nuenean pentsatu nuen niri zegokidala filma egitea, ez neukan zalantzarik. Eta ikerketa prozesu sakon baten ostean hasi nintzen pelikulari forma ematen.

**Hainbat alorretan nabarmendu zen Elbira Zipitria. Baina nor zen bera?**

Euskal Herriko emakume garrantzitsua izan zen; euskararen alorrean, duda barik, hezkuntzaren alorrean... Zumaian jaio zen 1906an, beka bati esker magisteritza ikasi zuen eta politikaria izan zen Emakume Abertzale Batzan... pentsa emakumeok bozkatzeko eskubidea lortu genuela 1931n eta bera jada kanpoan zebilen mitinak ematen. Oso aurrerakoia zen bere garaietarako. Gerra garaian erbestera egin zen, abertzaletasunagatik, eta





Ostiralean estreinatuko dute Elbira Zipritia andereñoaren inguruko dokumentala. ZAZPIT'ERDI

1941ean bueltatu zen Donostiara, gure identitatea, kultura, hizkuntza defendatzeko asmoarekin. Orduan ireki zuen eskola klandestino hau bere etxean. **Nolako arrastoa utzi dizu Elbirak?** Sekulakoa. Elbira egon da nire bizitzaren erdigunean urte askoan, eta nik ispilu bat bilatu dut beregan; niretzako emakumezko arbasoa da. Garrantzitsua da niretzat, euskal emakume bezala, halako erreferenteak ikustea; ikustea zer lan egin zuten, eta guk kate horri jarraipena ematea. Topikoa da, baina gaur egun zer garen ulertzeko atzera begiratu behar dugu. **Prozesu luzea izan du filmak, ezta?** Proiektu txiki hauek halakoak izaten dira, finantziazioa bilatzeko denbora asko eman behar duzu... Pixkanaka lortu dugu laguntza asko, pertsona eta erakundeen babesarekin. Kriston poza da zinema areto

komertzialetan ikusteko aukera izatea; eta ez bakarrik dokumental txiki bat delako, baizik eta euskara hutsean egindako filma bat delako ere. Gasteizko Florida zinemetan izango da ostiraletik aurrera. **'Muga deitzen da pausoa'-rekin batera, beste proiektu batekin ere bazabiltza Kuartango aldean...**

Bai, istorio polita da. Kuartangoko bailaran western bat egin zuten, diru gutxirekin, eta herriko jendearekin eraiki zuten herrixka bakero bat pelikula egiteko... Orain, pelikula horren inguruko dokumental bat egiten nabil *Kuart Valley* izenekoa. Oso proiektu ezberdina da. ■



Lizarralde soinua  
**TXALAPARTA** S.L.

Audio Profesionala, Megafonia.

[www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus](http://www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus)  
txala@txala.euskalnet.net  
945 22 69 77  
GASTEIZ

# Juan Perro

MUSIKA



IGOR MUÑOZ

MUSIKAZALEA

**K**apitalismoaren logikek, pixkanaka, gure egunerokotasuna kolonizatzen jarraitzen dute. Bere baloreak lan eremuan finkatu ez ezik, aisialdian ere gero eta sarriago jasaten ditugu inongo lotsarik gabe. Garrantzitsuena eskaintzen diguten produktuek errentagarritasun ekonomikoa izatea da. Ekoizleek inbertitutako dirua berehala euren patriketara puztuta itzultzea da baldintza nagusia. Egungo musikaren egoerari erreparatuta, erraz topa ditzakegu adibideak: telebista lehiaketetan, radio formula komertzialetan...

Non geratu da kalitatea? Eta artea? Izenak grezieraz ondo dioen bezala, musika "musen artea" da, ez ordea, etekinekin zerikusia duen beste ezer.

Zorionez, ondo aukeratuta, badira oraindik musekin harremanetan dabilzan musikagileak. Zalantzarik gabe, horietako bat Santiago Auseron filosofo, abeslari eta abesti idazlea dugu. Pozteko albistea da Poetak Maiatzean festivalaren egitarauan Zaragozakoaren izenarekin topo egitea. Kasu honetan, Radio Futura utzi eta gero, bakarkako ibilbidean erabiltzen duen izengoitia erabilita datorkigu, *Juan Perro* alegia.

80 eta 90. hamarkadetan musika anglosaxoi elektrikoak eraginda, Radio Futura estatu



RTVE

espainoleko pop-rock talderik arrakastatsuen bilakatu zen. Itsasoz bestaldera heldu ziren gaztelaniazko melodiak 92. urtean taldea desegitea erabaki arte. Bizi-erritmoa baretuta eta hausnarketarako denbora gehiagorekin, Auseronek ibilbide musikalaria buelta ematea erabaki zuen, izan ere, argi zeukan musikak entrenitzeaz harago joan behar zuela, nolabait gure arbasoek sortutako bide musikalaria jarraipena emateko.

**POZTEKOA DA POETAK  
MAIATZEAN JAIALDIAN  
ZARAGOZAKO  
MUSIKARIAREKIN  
TOPO EGITEA**

Tradizio musikal afroiberoamerikarrak ziren berari gehien interesatzen zitzaizkionak.

Kubako son estiloa ikertzen urteetan aritu ostean, 1995eko La Habana eta Londres artean grabaturiko *Raices al Viento* izan zen bere debut diskoa; hau da, Ry Cooderen Buena Vista Social Club (1997) proiektuak kubako son estiloa mundu osoan ezagutzera eman aurretik.

Ondorengo diskoetan Juan Perrok musika ezberdinak ikertzen jarraitu izan du. Soula, bluesa, jazz...

Intelektualitaterantz emandako birak eta soinuak jasandako mestizatze prozesu horrek eragin garbiak ekarri dizkio Auseroni.

Alde batetik, jarraitzaileen kopurua erabat murriztuta, mass-media hedabideen eragin-gunetik alboratzea; disketxe handiak dastatzetik, gainera, orain diskografika propioan lan egitera behartuta dago.

Bestalde, aitzak dira kultura arloan irabazitako esker onak eta sariak. Garrantzitsuena 2011n jasotako Musika Garaikideen Sari Nazionala.

Gure saria berriz, maiatzaren 25ean, larunbatean, bera Joan Vinyals eta Gabriel Amargantekin hirukotea osatuz Gasteizko Principal antzokian entzun ahal izatea izango da. Zaunk-zaunk.... ■■■

# Zadorraren agindupean

GURE BAZTERRAK



## Billoda

**Kuadrilla:** Añana.

**Udalerrria:** Iruña Oka.

**Biztanleak:** 319 (2018ko Eustaten datuen arabera).

**Bitxikeria:** XX. mendearen hasiera arte larruak eta zuziak erretzen zituzten Billodako gazteek ihauterietan.

**TESTUA:** ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE  
**ARGAZKIA:** PHOT.OK

Zadorra ibaiak zuzentzen du Billodako bizilagunen bizitza, batik bat euria gogoz egiten duenean. Orduan, urak hamar begiko zubia hartzen du eta herritarrak ordu luze batzuek isolaturik geratzen dira. Arazoa ez da berria, baina erakundeek aldetik ez zaio irtenbiderik eman orain arte.

Meandro handi bat egiten du Zadorrak Billodan, eta ibaiaren bi adarren artean geratzen da herria. Iparraldera dago Erdi Aroko zubia, Gasteizko irtenbide naturala; hegoaldean, berriz, San Pelayo ermitaren parean, Garaboko pasabideak daude –antzinako harrizko pasaguneak–, Langraizera joateko.

Bost kilometro ibilbide seinaleztatua dago Billoda eta Langraiz Oka artean, eta aspaldi Garabon egon zen presaren aztarnak bisitatu daitezke. Elektrizitatea sortzeko fabrika txiki bat eta irina

lantegi bat ere kokatu zituzten bertan; gainera, soka batekin lotutako txalupa batean pasatzen ziren ertz batetik bestera Billodako herritarrak, negu partean. Gaur egun, desagerturik dago hori guztia, eta Zadorra ibaiaren hondoan eraikitako harrizko eta zementuzko pasabidea ez da ia igartzen.



40. hamarkadan, Garabora eraman zituzten Miranda Ebroko kontzentrazio-esparruan zeuden presoak, Langraiz Okako espetxea eraikitzen. Harrizko pasabidea erabiltzen zuten presoek meza entzutera derrigorrean joaten zirenean Billodako San Pelayo ermitara.

Billodako hamar begiko zubi ederra XIV-XV. mendeetako da, baina jendartearen ezaguna da Erromatar Zubia izenez ere. Zergatik? Araban, Zadorra, Baia eta Ebro ibaiak Astorga eta Bordele lotzen zituen iter XXXIV. erromatar bidearen erdian daudelako, eta gainera, Iruña-Veleia erromatar hiria dago Billoda eta Tresponde herrien artean. Hortaz, urte luze uste izan da Zadorrako hainbat zubi erromatarren garaian eraikitakoak zirela, nahiz eta Erdi Arokoak izan.

Billodak eta Trespondek Iruña izeneko udalerrria osatuzuten, baina 1976an Langraiz Okarekin batu ziren, eta Iruña Oka sortu zuten.

## Tximeleta origamia

**EGILEA: TOKI-EDER IKASTOLA - 5. maila C**

Papiroflexia bidez tximeleta bat nola egiten den erakutsiko dizuegu. Hori bai, papiroflexia egiten hasi aurretik ezinbestekoa da A4 orri bat karratu bihurtzea, 21 zentimetroko 4 alde dituen.

### Materiala

- Papera.
- Artaziak.
- Zinta itsasgarria.

### Nola egin

1. Bi diagonalak eta bi bertikalak tolestu.
2. Bertikal batetik tolestuta dagoela 2 aldeak barrurantz sartu eta erditik tolestu triangelu txiki bat egin arte.
3. Artaziak hartu eta itxita ez dagoen aldetik borobildu.
4. Triangelu txikia ireki handiago bat lortuz, borobilduta ez dagoen erpina zuri begira jarri eta borobilduta dauden 2 aldeak erdirantz tolestu, bukatzeko tximeletari buelta eman eta erpin zorrotza gorantz jarri tximeleta lortzeko.



### Irabazleak:

#### ALEA produktu sorta:

Iber Martinez de Contrasta Acilu, Bergoi Madernaz del Pozo, Ane Bedaio Pascual eta Maika Casteig Diaz.

#### Florida zinemarako sarrera bikoitza

Jaime Ortiz de Urbina Duran eta Mila Zabala Markuleta.



#### Hala Bedin afaria

Gasteizko alde zaharreko Hala Bedi tabernan bi lagunentzat afaria zozkatuko du ALEAk, ostiral edo larunbat batean afaltzeko. Zozketan parte-hartzeko, eman izena ekainaren 4a baino lehen; ekainaren 7ko zenbakian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



#### Gorbeia zinemarako bi sarrerak bikoitz

Gorbeia zinemetan, edozein pelikula ikusteko sarrera bikoitz bat zozkatzen du ALEAk. Interesatuak hilaren 28a baino lehen eman behar dute izena; maiatzaren 31ko ALEAn argitaratuko ditugu irabazleen izenak.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:

**945 71 60 09**

On-line:

**[alea.eus/harpidetzak](http://alea.eus/harpidetzak)**

E-mailez:

**[harpidetza@alea.eus](mailto:harpidetza@alea.eus)**

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@alea.eus](mailto:harpidetza@alea.eus)

# AGENDA

Maiatzaren 24tik 30era

## Euskararen agenda

### MUSIKA

#### AMURRIO Keu Agirretxea

Gau Akustikoa jaialdiaren barruan. Ibai Marin, Perdidos Entre Ilusiones, Maren, Dr. Sax eta Eneko Mobydickekin.  
*Ostirala 24, 20:00etatik aurrera, Burubio aretoan.*

#### GASTEIZ Izaki Gardenak

Errekaleor auzoko jaien barruan. Anita Parker, La Furia, Komando Klitorix eta Ni Yuta Ni Tuya taldeekin.  
*Larunbata 25, 21:30etik aurrera, Errekaleorren.*

#### GASTEIZ TOC

*Astearte 28, 20:30ean, Parralen.*

### BERTSOLARITZA

#### GASTEIZ Bertso trama

Errekaleorreko jaien barruan. Unai Iturriaga, Eli Pagola, Jone Uria eta Iñaki Viñaspre bertsolariekin.  
*Ostirala 24, 20:00etan, Errekaleorren.*

#### LAUDIO 'Altxa kopla hori!' saioa

Aroa Arrizubieta, Manex Agirre, Xabier Rico eta Serapio Lopezekin. Haiekin batera, bi musikari eta gai-jartzailea izango dira.  
*Ostirala 24, 20:30ean, Aretako kultur etxearen inguruan.*

#### ZIGOTIA Eskolarteko Finala

Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa.  
*Larunbata 25, 11:00etan, kiroldegian.*



MAITE LARBURU

#### GASTEIZ Maite Larburu

'Hezurren azpian' diskoa aurkeztuko du.  
*Osteguna 30, 19:30ean, Falerina tabernan.*

### HAURRAK

#### GASTEIZ 'Enaitz pirata ipuinen munduan' ipuina

Onintze Goitzen eskutik. Ondoren tailerra izango da. 3-8 urte bitartean. Igandeak Jai zikloaren barruan.  
*Igandea 26, 17:30ean, Errekabarrin*

### HITZALDIA

#### GASTEIZ 'Soziolinguistika hiztegi txikia' ikastaroa

Ikastaroaren bosgarren eta azken saioa. Amelia Barquin eta Mario Zapatarekin. Kulturartekotasuna izango dute mintzagai.  
*Astearte 28, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.*

#### ARAMAIO Zuriñe Hidalgo

Musikaren inguruko solasaldia Zuriñe Hildagorekin. Musika Astea.  
*Asteazkena 29, 18:30ean, Sastiñan.*

#### GASTEIZ 'Samarkandarako bidean'

Lorenzo Rojo bidaiazalearen eskutik. Bizikletaren Astearen barruan.  
*Astearte 28, 20:00etan, Aldabe gizarte etxean.*

### DANTZA

#### GASTEIZ Dantza Plazan

Udal Folklore Akademiaren eskutik.  
*Ostirala 24, 20:00etan, Plaza Berrian.*

### BESTELAKOAK

#### GASTEIZ 'Artze... Joxan, oroituz!'

Mixel Ducau eta Andoni Salameroeren eskutik. Joxan Artzeren olerkiak irakurri eta haren kantak abestuko dituzte. Poetak Maiatzean zikloa.  
*Asteazkena 29, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.*



JUAN BLANCO

### MAEZTU Mendialdea Music Festival

Agoraphobia, Moonshakers, Motto, Trikoma, Nevadah eta beste hainbat talde.  
*Larunbata 25, 20:00etatik aurrera, pilotalekuan.*

### GASTEIZ Irakurle Kluba

Iñaki Irazuren 'Errukiaren saria' poesia liburua izango dute solasgai.  
*Osteguna 30, 19:30ean, Ignacio Aldekoa kultur etxean.*

## Beste batzuk

### MUSIKA

#### LANGRAIZ OKA La Crisis

*Larunbata 25, 19:00etan, Rita Oraa plazan.*

#### GASTEIZ Tronpeta kontzertua

Luis Aranburu eskolako ikasleekin.  
*Asteazkena 29, 19:15ean, Luis Aranburu musika eskolan.*

#### GASTEIZ Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Rober Treviñok zuzenduta.  
*Osteguna 30, 20:00etan, Principal antzokian.*

### ANTZERKIA

#### GASTEIZ 'La culpa'

David Mameten obra. Pepon Nieto, Magüi Mira, Miguel Hermoso eta Ana Fernandez aktoreekin.  
*Ostirala 24, 20:30ean, Principalen.*

#### GASTEIZ 'Señora de rojo sobre fondo gris'

Miguel Delibesen testua. Jose Sacristan aktorearekin.  
*Asteazkena 29, 20:30ean, Principal antzokian.*

### BESTELAKOAK

#### URBISU 'La hora violeta' irakurketa feminista

Poetak Maiatzean zikloaren barruan.  
*Ostirala 24, 19:00etan, Santa Luzia baselizan.*

#### GASTEIZ 'Natura ilustratua' erakusketa

Kalkografiako grabatuen bilduma.  
*Ekainaren 23ra arte, Arte eta Lanbide eskolan.*

Euskararen Agendako hitzordu guztiak ikusteko:

[alea.eus/agenda](http://alea.eus/agenda)

A man and a woman are smiling and holding a white banner with text. The man is on the left, wearing a blue button-down shirt. The woman is on the right, wearing a brown blazer over a white top. The background is a light blue gradient with a green shape on the right side.

**KANPAINA  
ITXIERA EKITALDIA**

**MAIATZAK 24, 20:30  
PROBINTZIA PLAZA**

Zurekin  
**GASTEIZ**  
gara